DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Idazkaritza nagusia
Secretaría general

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481012 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.**

**Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek**
**Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián**

**Neuk ziurtatua:**
**Certifico:**

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2022ko urriaren 25ean egindako ohiko bilkuran, honako adierazpen hau onartu zuen gehiengoz, EAJ/PNV, EH BILDU eta Elkarrekin Donostia taldeetako bozeramaileen aldeko botoekin eta Donostiako Sozialistak PSE-EE eta PP taldeko bozeramaileen kontrako botoarekin, honako adierazpen hau onartu zuen:

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 25 de octubre de 2022, aprobó, por mayoría, con los votos a favor de los Portavoces de los Grupos EAJ/PNV, EH BILDU y Elkarrekin Donostia y el voto en contra de los Portavoces de los Grupos Socialistas Donostiarras PSE-EE y PP, la siguiente declaración:

*“ERAKUNDE ADIERAZPENA, XABIER ATRISTAIN PRESO DONOSTIARRA ESPETXEAN BERRIRO SARTZEARI BURUZKOA*

*“DECLARACIÓN INSTITUCIONAL SOBRE EL REINGRESO EN PRISIÓN DEL PRESO DONOSTIARRA XABIER ATRISTAIN*

*Xabier Atristain preso donostiarra espetxean sartu dute berriro eta bigarren espetxe-graduan jarri dute, bigarren aldiz jarraian, Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentralak erabakita, Auzitegi Nazionaleko Fiskaltzak eskatu ondoren.*

*El preso donostiarra Xabier Atristain ha ingresado de nuevo en prisión, y se le ha asignado el segundo grado penitenciario, por segunda vez consecutiva, por decisión del Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria, previa solicitud de la Fiscalía de la Audiencia Nacional.*

*Gogoratu behar da, duela hilabete batzuk, Europako Justiziak epai bat eman zuela Espainian hartutako erabaki judizial baten kontra. Epai horretan salatzen zen preso hau bere deklarazioa oinarritzat hartuta epaitu eta zigortu zutela, zegokion laguntza judiziala izan gabe eta torturak jasan zituela salatu ondoren.*

*Hay que recordar que hace unos meses la Justicia Europea dictó una sentencia contra una decisión judicial adoptada en España. En dicha sentencia, se denunciaba que este preso había sido juzgado y condenado en base a su declaración, sin contar con el auxilio judicial correspondiente y tras denunciar que había sufrido torturas.*

*Martuteneko espetxeko tratamendu-batzarrak birritan helarazi dio Espetxeetako Administrazioari, berrets zezan, Xabier Atristaini hirugarren gradua ezartzeko eta baldintzapeko askatasuna emateko–eskumuturreko telematikoarekin– proposamena.*

*La Junta de Tratamiento del Centro Penitenciario de Martutene ha trasladado en dos ocasiones a la Administración Penitenciaria, para su ratificación, la propuesta de asignación del tercer grado y de concesión de la libertad condicional −con pulsera telemática− a Xabier Atristain.*

*Udal korporazio honek bere kezka adierazi nahi du Fiskaltzak espetxe-organoek hartutako ebazpenen aurka behin eta berriro errekurtsoak jartzen dituela eta. Izan ere, kontuan hartu behar da organo horiek direla presoek espetxean duten bilakaera ondoen ezagutzen dutenak.*

*Esta corporación municipal manifiesta su preocupación por los reiterados recursos interpuestos por el Ministerio Fiscal contra las resoluciones adoptadas por los órganos penitenciarios. Hay que tener en cuenta que son estos órganos los que mejor conocen la evolución de las personas reclusas dentro de la prisión.*

*Hori dela eta, eskatzen dugu, ebazpen judizialek merezi duten errespetua aintzat hartuta, ebazpen horiek*

*Por ello, solicitamos que, teniendo en cuenta el respeto que merecen las resoluciones judiciales, éstas sean compatibles*

10740n XVII

*bateragarriak izan daitezela Espetxeetako Administrazioko organoen erabakiekin, gradu progresioak eta/edo espetxeko baimenak arau izan daitezen, eta ez salbuespena”.* ==========================

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatetzak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2022ko urriaren 25ean.

*con las decisiones de los órganos de la Administración Penitenciaria, para que las progresiones de grado y/o los permisos penitenciarios sean la regla, y no la excepción”.* ====================================

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 25 de octubre de 2022.

**IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL**

**Juan Carlos ETXEZARRETA VILLALUENGA**

**ALKATEAK O. E. -**
**V. º B. º DEL ALCALDE:**